


Euskal AEko eraikuntzako kostuak % 0,5 igo ziren 2018ko ekainean aurreko hilabetearen aldean

Aurreko urtearen aldean, 2018ko ekaina eta 2017ko ekaina alderatuta, % 3,1 igo ziren kostuak

EAEko Eraikuntzako Kostuen Indizea % 0,5 igo zen 2018ko ekainean aurreko hilabetearen aldean; hilabete horretako urte-arteko tasa, berriz, % 3,1 igo zen, EUSTATEk emandako datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilabetearen aldean, eskulanaren kostuak ez zuen aldakuntzarik izan (% 0,0) eta lehengaien kostua % 0,6 igo zen.

Lehengaien barruan, bi azpisektoreek, Eraikuntzakoak eta Herri Lanetakoak, % 0,6ko igoera izan dute haien lehengaien kostuan. Urte-arteko eboluzioan, bi azpisektore horietan seinale bera ikusten da, Eraikuntzako lehengaien kostuak % 3,2 igo baitira, eta Herri Lanetakoak % 5,5.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioen artean, kontuan izanik hazkunde handiagoak izan dituztela, 2018ko ekaina eta 2017ko ekaina alderatuta, sektore hauetako

igoerak nabarmentzen dira: *Petrolio fintzea* (% 22,1), *Metalurgia* (% 7,0) eta *Mineral ez metalikoak* (% 5,7). Aldiz, azkeneko hamabi hilabeteetan lehengaien prezioak jaitsi egin dira sektoreak hauek: *Zurgintza* (% 0,2) eta *Kautxua eta plastikoa* (% 0,1).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2018ko Ekaina

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	104,2	0,5	3,1	1,8
Eraikinak	104,2	0,5	2,9	1,7
Obra zibila	104,6	0,5	4,6	2,5
LEHENGAI	102,7	0,6	3,5	1,9
Eraikinak	102,6	0,6	3,2	1,7
Obra zibila	103,1	0,6	5,5	2,7
LAN-ESKUA	109,8	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62